



“Ez naiz produktu formatatu bat”

Anje Duhalde | El Fuego taldeko bateria-jolea

Betikoa da Anje. Gazteleraz, txerriaren prezioa negoziatzeko ikasten zen garaikoa. Gaurkoa, biharkoa. Betiko Anje da. Dylan, Amuriza, eta Brassens uztartu zituen, aho-bizarrak tabakotan erretzen dituen.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Gaizka Iroz

Bateria-jole, beraz?

Luzaz gainera. Oraindik askok esaten didate: “hik gitarra bateria bezala jotzen duk, beti eman eta eman”.

Eskerrak musika munduan sartu ahala profesionalagoa izan behar dela!

Ez teknika aldetik bakarrik, baita ikuspuntu sozial batetik ere.

Zer obligazio dakar horrek?

Guztiz koherentea izatea. Inor baino gehiago. Koherente eta koherente.

Eta diskoak promozionatzea.

Promozioak ez zaizkit batere gustatzen. Etengabe ari gara kalean dagoena azaltzen. Produktua hor dago eta kito. Ez luke promoziorik behar.

Ez ezazu promoziorik egin...

Hautu bat da eta hortara noa ni ere. Baina hasiberri batentzat hortik ez pasatzea ezinezkoa da.

Zergatik ez da aipatzen disko baten atzean dagoen lana?

Mediatikoki ez da korrektua. Ez zaio jendeari interesatzen. Baina lana, noski badela. Handia.

Zure diskoak entzuten dituzunean...

Gauza batzuk entzun eta nire burua gorrotatzen dut.

Amnistiaren dema?

Kantu errealista, helburu izan beharko lukeena, baina pixka bat desfasatua. Hori kantatzen duen jendeak “Presoak Euskal Herrira” aldarrikatzen du kalean.

Horregatik dago txikikeriei kantatzea modan?

Auskalo. Ni ez naiz produktu formatatu bat eta ez dut disko bat nire buruari kantatzeko egiten.

Zeresanik ez duenak isiltzea hobe duela, alegia.

Batzuentzat artista izatea estetika hutsa da. Niretzat ez.

Zer da artista “konprometitu” bat?

Bere inguru hurbil eta orokorrarekin koherentea izan nahi duen pertsona bat, begiak irekiak dituen, ixten dituenan ongi hausnartzeko.

Hori bera omen zara zu. Estereotipo konprometitu hortan eroso?

Oso ongi daramat. Ematen dudana irudia naiz.

“Beti iheska eta otoitzka ibili den herria gara, beti eskean”. Konpromisoa baino zerbait gehiago da hori...

Beti iheska ibili behar dugu ingurumenarekin konfrontazio zuzen bat ez izateko. Beti eske, euskara dela, ikastolak direla... Ez garen herri bat gara.

Ez garen herri honetan, edozein kulturaren funtzionario artista bat baino hobeki bizi da.

Oso injustua da. Hemen artista izatea hein bate-raino dago kontsideratua. Hautua nirea da. Nahiago dut naizen bezalakoa izan, eskuak eta burua libre, eta koherentziari eutsi.

“Anje, zu iparraldekoa zara, zu desberdina zara”.

Hori gabatxoa edo frantsesa esaten ez didate-nean! Gorroto dut baina badakit kondentua nagoela. Iparraldea eta Hegoaldea hitz hutsak dira. ■